

## 5-Diru iturria:

Egon daitezkeen diru-sarrera iturri guztiak hartu behar dira kontuan. Produktuaren edo zerbitzuaren salmentaren kobrantzatik, datuak ematea kobratzera, gure webgunean beste enpresa baten publizitatea erakusteagatik, etab.

Gure produktuaren bidez egon daitezkeen diru iturriak hainbat dira. Lehenik eta behin eta gure enpresari irabazi gehien ekarriko diona produktuaren salmenta bidez izango da, aurretik bezeroen segmentazioan azaldu dugun bezala gure merkatua balkoia edo lorak duten jendearentzako baitira. Bestalde kostuen egituran azaldu dugun bezala gure produktua ezagutzera eramateko publizitatea egingo dugu eta publizitate hori hasieran enpresarentzako gastua den harren denborarekin gure onurarako izango da. Diru iturri hauez gain, produktua apurtuko bazen langileak izango genituzke konpontzeko, beraz hortik ere diru sarrerak gehiago lortuko genituzkeen.

